5/2022 EBAZPENA, maiatzaren 16koa.

PRESIDENTEA: María Barrena Ezcurra.

MAHAIKIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunari buruzko Gaietako Erreklamazioen Batzordeak, lehen aipatutako kideek osatuta dagoenak, andreak formulatutako erreklamazioari buruzko EBAZPEN hau jaulki du.

Erreklamazio horren oinarria informazio publikoa eskuratzeko egin zuen bidezko eskabidean eskatu zuen informazioa ez igortzea izan zen.

Maria Barrena Ezcurra andrea da ebazpen honen txostengilea, eta Batzordearen iritzia adierazten du:

## EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2022ko martxoaren 30an andreak (aurrerantzean, “ ” edo “*erreklamatzailea*”, bata zein bestea)

RESOLUCIÓN 5/2022, de 16 de mayo.

PRESIDENTA: María Barrena Ezcurra.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la reclamación formulada por DOÑA .

Dicha reclamación se fundamentó en la falta de remisión de la información solicitada en la correspondiente solicitud de acceso a información pública en formato electrónico.

Actúa como ponente de la presente resolución Doña Maria Barrena Ezcurra, quien expresa el parecer de la Comisión:

## ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO. Con fecha 30 de marzo de 2022, (en lo sucesivo, e indistintamente, *“la Sra. ” o “la reclamante”*) presentó,

informazio publikoa eskuratzeko eskaera aurkeztu zuen, SAIP 2022-023 zenbakiarekin erregistratu zena.

Zehatzago esanda Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari (GUFE) administrarien 25 plaza betetzeko hautaproben deialdia ofizioz berrikusteko espedientera iristeko eskatu zitzaion. Bereziki GUFEko Gobernu Batzordearen 2022ko martxoaren 11ko bileran (1/22 akta) hartutako erabakiaren oinarri diren txostenetarako sarbidea eskatu zuen; erabaki horren bidez deialdiaren zuzenbidezko erabateko deuseztasuna deklaratzen zen.

<u>BIGARRENA</u>.- GUFEko Gerentziaren apirilaren 6ko Ebazpenaren bidez informazio-eskaera onartu zen, eta GUFEko bulegoetan espedientea eskuratzea xedatu zen.

<u>HIRUGARRENA</u>.- 2022ko apirilaren 8an andreak erreklamazioa aurkeztu zuen Batzorde honetan.

Erreklamazioan adierazten da informazio publikoa eskuratzeko bere eskaera onartzen duen ebazpenak xedatzen duela sarbide hori GUFEren bulegoetan egingo dela, telefonoz hitzordua eskatu ondoren.

Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 14. Artikuluan ezartzen denarekin bat pertsona fisikoek Administrazioarekin harremanak izateko modua aukera dezakete. Aztergai dugun kasu honetan eskaera Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu zen, eta, beraz, hori izan zen administrazio honekin harremanak izateko aukeratu zen bidea. (...).

solicitud de acceso a información pública, que quedó registrada bajo el numero SAIP 2022-023.

En concreto, se solicitó del Instituto Foral de Asistencia Social de Bizkaia (IFAS) el acceso al expediente de revisión de oficio de la convocatoria de pruebas selectivas para la provisión de 25 plazas de administrativo/a. En particular solicitaba acceso a los informes que fundamentan el acuerdo de la Junta de Gobierno del IFAS, en su reunión de fecha 11 de marzo de 2022 (Acta 1/22), por el que se declara la nulidad de pleno derecho de la convocatoria.

<u>SEGUNDO</u>. Mediante Resolución de 6 de abril, de la Gerencia del IFAS, se admite la solicitud de información y se dispone el acceso al expediente en las oficinas del IFAS.

<u>TERCERO</u>. El día 8 de abril 2022, la Sra. interpone reclamación ante esta Comisión.

En la reclamación se señala que la resolución por la que se admite su solicitud de acceso a la información pública dispone que dicho acceso se efectuará en las oficinas del IFAS previa cita telefónica.

Conforme al artículo 14 de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo las personas físicas pueden elegir el modo de relacionarse con la Administración. En este caso la solicitud fue presentada vía sede electrónica de la Diputación, siendo por tanto, ese el medio elegido para relacionarse con esta Administración.
(...).

Beste alde batetik, proposatutako sarbide-modua ez dator bat gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezartzen duenarekin, lege horrek bere 22. artikuluan ezartzen duelako informazioa ahal dela bide elektronikoz eskuratu ahal izango dela, salbu eta ezinezkoa denean edo eskatzaileak berariaz beste bide bat adierazi duenean. (...)

Por otra parte, el modo de acceso propuesto contradice la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno en su artículo 22 que establece que el acceso a la información se realizará preferentemente por vía electrónica, salvo cuando no sea posible o el solicitante haya señalado expresamente otro medio. (...)

Eta arau horren espirituaren aurka doa, hain zuzen ere administrazioa herritarrengana hurbiltzea, hitzaurrean aitortzen duen bezala: gardentasunaren kultura ezartzea, Administrazioa modernizatzeko, karga burokratikoak murrizteko eta baliabide elektronikoak erabiltzea, parte-hartzea, gardentasuna eta informazioa eskuratzea errazteko.

Y contraviene el espíritu de esta norma, acercar la Administración a la ciudadanía, reconocido en su preámbulo: la implantación de una cultura de transparencia que impone la modernización de la Administración, la reducción de cargas burocráticas y el empleo de los medios electrónicos para la facilitar la participación, la transparencia y el acceso a la información.

Amaitzeko, informazioarekiko irisbidea bide elektronikoz egiteko eskaera egiten du, legetik ondorioztatzen den bezala eta bere aurreko jarduketetatik ondorioztatzen dena betez (BFArekiko harremanak elektronikoki egiteko borondatea).

Termina con la solicitud de que el acceso a la información se haga por vía electrónica tal y como se desprende de la ley y se deduce de sus actuaciones previas (voluntad de relacionarme electrónicamente con la DFB).

LAUGARRENA.- Erreklamazioa jaso ondoren, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari eskatu zitzaion andreak bere erreklamazioan planteatutako gaiei buruzko informazioa emateko.

CUARTO. Una vez recibida la reclamación, se solicitó al Instituto Foral de Asistencia Social que informase respecto de las cuestiones planteadas por la en su reclamación.

BOSGARRENA.- 2022ko maiatzaren 3ko txostenaren bidez GUFEko Hautaketa eta

QUINTO. Mediante informe de 3 de mayo de 2022, la jefa del Área de Selección y

Hornidura Arloko buruak adierazi zuen, Administrazio Prozedurari buruzko 39/2015 Legea eta Bizkaiko Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Araua aipatu ondoren, nahiz eta interesdunak informazio publikoaren eskaeran ez zuen lehentasunik adierazi espedientea eskuratzeko moduari dagokionez, txosten hau eragin duen erreklamazioan baliabide elektronikoen bidez iristeko eskatu zuela, eta honako hau ondorioztatu zuen:

Provisión del IFAS, señala, tras la cita de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo y de la Norma Foral 1/2016, de Transparencia de Bizkaia, que si bien la interesada no indicó preferencia por el modo de acceso al expediente en su solicitud de información pública, sí insta el acceso por medios electrónicos en la reclamación de la que trae causa el presente informe, concluyendo:

*andreak administrari izateko 25 lanpostu betetzeko hautaproben deialdia (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 250. zk., 2021eko abenduaren 30ekoa) ofizioz berrikusteko espedienteari dagokionez bitarteko elektronikoen bidez iristeari buruzko aldeko txostena jaulkitzen da eta interesdunak emango duen helbidera posta elektronikoz bidaltzea proposatzen da.*

*Se informa favorablemente sobre el acceso por medios electrónicos por parte de Dña. al expediente de revisión de oficio de la convocatoria de pruebas selectivas para la provisión de 25 plazas de administrativo/a (Boletín Oficial de Bizkaia número 250, de 30 de diciembre de 2021), proponiéndose su remisión por correo electrónico a la dirección pendiente de facilitar al efecto por la interesada.*

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENENGOA.- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea arestian aipatutako 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen.

PRIMERO. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la anteriormente referida Norma Foral 1/2016.

Foru arau honen 29.1.1 artikuluaren arabera, 2. artikuluari lotuta, biak ala biak foru arau honi datxezkiola, Erreklamazio Batzordeak eskumena izango du Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomiadunen, foru enpresen erakunde publikoen, foru merkataritzako sozietateen, foru fundazioen eta foru partzuergoen eta zuzenbide publikoko beste foru erakunde batzuen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzearen aurkako

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios

erreklamazioak ebazteko.

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduak, uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, bere 18. artikuluan ezartzen du, besteak beste, Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela: "*a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*"

BIGARRENA.- Jaso ditugun aurrekarien arabera andreak erreklamazioa aurkeztu zuen Batzorde honetan ez baitzitzaion eskatutako informazioa eman bitarteko elektronikoak erabiliz.

Errekurtsogileak bere interesekoa zen informazio publikoa eskatzeko bete zuen formularioa aztertuta ikusten da bertan honakoa adierazten dela:

*Formulario edo eskabide honetatik eratorritako jakinarazpenak eta/edo komunikazioak honako posta-helbide honetan egingo dira, baldin eta ematen diren unean Bizkaiko Foru Aldundiaren Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoan inskribatutako indarreko ahalorde-ematerik ez badago eta/edo «jakinarazpen eta komunikazioetarako nire harpidetzak» atalean jasoko den jakinarazpen elektronikoaren harpidetzarik ez badago.*

Errekurtsogileak, jarraian, jakinarazpenak

forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio ("*Decreto Foral 128/2016*"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: "*a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.*"

SEGUNDO. De acuerdo con los antecedentes que hemos recogido, la formuló reclamación ante esta Comisión al no habérsele facilitado la información solicitada haciendo uso de medios electrónicos.

Examinado el formulario que cumplimentó la recurrente para solicitar la información pública de su interés, se aprecia que en el mismo se señala:

*Las notificaciones y/o comunicaciones derivadas del presente formulario o solicitud se practicarán en la siguiente dirección postal siempre y cuando no exista en el momento de su emisión, vigente un otorgamiento de poder inscrito en el Registro Electrónico de Apoderamientos de la Diputación Foral de Bizkaia y/o una suscripción a la notificación electrónica que constará en el apartado «Mis suscripciones a notificaciones y comunicaciones»:*

La recurrente cumplimentó seguidamente

bidaltzeko posta-helbidea bete zuen formularioan.

en el formulario la dirección postal a la que debían enviarse las notificaciones.

HIRUGARRENA.- Kontuan izan behar da 1/2016 Foru Arauaren 19.1 artikuluak berariaz aitortzen duela, besteak beste, informazio publikoa eskatzen duten pertsonen eskubidea dela *"eskatutako informazioa foru arau honetan eta aplikatu beharreko legerian ezarritako epeetan jasotzea eta eskabidean adierazitako forman eta formatuetan jasotzea, aukera hori ezinezkoa denean eta horretarako arrazoiak azaltzen direnean izan ezik"*.

TERCERO.- El artículo 19.1 de la Norma Foral 1/2016 reconoce expresamente, entre otros aspectos, el derecho de las personas que solicitan acceder a información pública *"a recibir la información solicitada en los plazos establecidos por la presente Norma Foral y la legislación aplicable, y a que le sea entregada en la forma y formatos indicados en la solicitud, salvo que esa opción sea materialmente imposible y así se exponga de forma motivada"*.

Beste alde batetik, arau bereko 25. artikuluak honako hau ezartzen du: *"eskatutako informazio publikoa formatu digitalean emango da, oro har, salbu eta eskatzaileak beste formatu batean eskatzen badu eta teknikoki bideragarria bada"*.

Por otro lado, el artículo 25 de la misma norma establece que *"la información pública solicitada se proveerá generalmente de forma y en formato digital, salvo que quien la solicita la demande por otro medio y la entrega a través de ese formato sea posible técnicamente"*.

Aurreko manuek administrazio-prozedura erkidearen arloko oinarrizko araudiaren translazioa eratzen dute. Hain zuzen ere, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluak pertsona fisikoek dituzten eskubideak zaintzen ditu, eta honakoa ezartzen du: *"Pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez, non eta ez dauden behartuak administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera. Administrazio publikoekin komunikatzeko aukeratu duen bidea noiznahi aldatu ahal izango du norberak"*.

Los preceptos anteriores constituyen una traslación de la normativa básica en materia de procedimiento administrativo común. En efecto, el artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, consagra el derecho de las personas físicas a *"elegir en todo momento si se comunican con las Administraciones Públicas para el ejercicio de sus derechos y obligaciones a través de medios electrónicos o no, salvo que estén obligadas a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas. El medio elegido por la persona para comunicarse con las Administraciones Públicas podrá ser modificado por aquella en cualquier momento"*.

Ildo beretik, 39/2015 Legearen 19.1 artikuluak ezartzen du oro har pertsonek

En idéntico sentido, el artículo 19.1 de la Ley 39/2015 establece el derecho general

bulego publikoetan ez agertzeko eskubidea dutela, lege-mailako arau batean hala ezarrita dagoenean izan ezik.

de las personas a la no comparecencia en las oficinas públicas, salvo cuando así venga establecido en una norma con rango de ley.

Aurreko aurreikuspenak martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuan garatzen dira, zeinaren bidez onartzen baita sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua.

Las previsiones anteriores se desarrollan en el Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos.

LAUGARRENA.- Gertakarien aurreko kontakizunak agerian uzten du andreak eskaera egin zuenean ez zuela berariaz adierazi eskatutako informazioa elektronikoki jaso nahi zuenik, neurri batean eskabide-inprimakian ez delako jasotzen interesdunak irisbide-eskubide hori sarbide elektronikoaren, paperean bidaltzearen edo aurrez aurre emateearen bidez erabili nahi duen.

CUARTO. El anterior relato de los hechos pone de manifiesto que, al realizar su solicitud, la no señaló de forma expresa que deseaba recibir la información solicitada de forma electrónica, en parte debido a que el impreso de solicitud no recoge el medio en que la persona interesada quiere ejercitar su derecho de acceso, bien mediante el acceso electrónico, el envío en papel o de forma presencial.

Adierazi dugun bezala, formulario horretako erreferentzia jakinarazpenak eta komunikazioak egiteari buruzkoa da. Praktika hori bitarteko elektronikoen bidez egingo da interesduna jakinarazpen elektronikora harpidetuta dagoenean.

Como hemos señalado, la referencia que se contiene en el citado formulario se refiere a la práctica de notificaciones y comunicaciones. Dicha práctica se realizará por medios electrónicos cuando la persona interesada se encuentre suscrita a la notificación electrónica.

Hori dela eta, Batzorde honen iritziz eta erreklamazio hau eragin duen bezalako egoerak saihesteko, berrikusi egin beharko lirateke herritarren eskura jartzen diren formularioak, beste datu batzuekin eta eskaerarekin berarekin batera interesdunak datuak eskuratzeko duen eskubidea nola erabili nahi duen jaso dezaten.

Por ello, a juicio de esta Comisión, y para evitar situaciones como la que ha dado lugar a la presente reclamación, debieran revisarse los formularios que se ponen a disposición de la ciudadanía, para que estos recojan, junto a otros datos y a la propia solicitud, la forma en que la persona interesada quiere ejercer su derecho de acceso.

BOSGARRENA.- Aurrekoa gorabehera, Batzorde honek eskatuta GUFEk egindako

QUINTO. No obstante lo anterior, en el escrito emitido por el IFAS a petición de

idazkian aldeko txostena eman da andreak administrari izateko 25 lanpostu betetzeko hautaproben deialdia (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 250. zk., 2021eko abenduaren 30ekoa) ofizioz berrikusteko espedienteari dagokionez, eta interesdunak eman behar zion helbidera posta elektronikoz bidaltzea proposatu zuen.

esta Comisión se ha informado favorablemente sobre el acceso por medios electrónicos por parte de Dña. al expediente de revisión de oficio de la convocatoria de pruebas selectivas para la provisión de 25 plazas de administrativo/a (Boletín Oficial de Bizkaia número 250, de 30 de diciembre de 2021), proponiéndose su remisión por correo electrónico a la dirección pendiente de facilitar al efecto por la interesada.

Kontuan hartuta errekurtsogileak bere eskabidean posta elektronikoko helbide bat eman zuela, salbu eta ebazpen hau jasotzean beste helbide bat adierazten badu, sarbidea emandako helbidean eman beharko zaio.

Teniendo en cuenta que en su solicitud la recurrente hizo constar una dirección de correo electrónico, salvo que a la recepción de la presente resolución indique otra distinta, el acceso le deberá ser facilitado en la dirección ya suministrada.

Ondorioz, bidezkoa da aurkeztutako erreklamazioa baiestea.

En consecuencia, procede estimar la reclamación planteada.

## EBAZPENA

<u>Lehenengoa</u>.- andreak sustatu duen erreklamazioa ONESTEA.

## RESOLUCIÓN

<u>Primero</u>. ESTIMAR la reclamación promovida por

hau erreklamatzaileari eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari jakinaraztea. Halaber, Estrategia Digitala eta Korporatiboaren Kabineteko Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

<u>Segundo</u>. Notificar esta resolución a la reclamante y al Instituto Foral de Asistencia Social. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa.

<u>Hirugarrena</u>.- Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitzen du eta,

<u>Tercero</u>. La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y

beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, BI HILABETEKO epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta jarduera-araudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta administrazioarekiko auziak arautzen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetzen arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin ados egonik.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.